Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko abuztuaren 27a, osteguna — 163 — Jueves, a 27 de agosto de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Euskara Zerbitzua

*Donostiako langabetuentzako doako euskara ikastaroak emateko diru laguntzen oinarri arautzaileak.*

ZIOEN AZALPENA

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak bere egiteko eta helburuen barne hartzen du Donostiako gizarte arlo guztietan euskararen erabilera normalizatzeko tresna izatea. Helburu estrategikoetako bat da helduen euskalduntze eta alfabetatzea indartzea. Besteak beste, euskalduntze-alfabetatze alorrean aurrera egiteko euskaltegien egitasmoak laguntzea aurreikusten da.

Donostiako Udalak bertan erroldatuta dauden langabetuentzako euskara ikastaroak diruz lagundu nahi ditu 2020an, hiriko euskaltegi pribatu homologatuekin lankidetzan. Talde hauen prezioa zehazteko zenbateko finkoa ezarri da, 2013ko irailaren 17ko Kultura Sailburuaren Aginduan jasotako prezio publikoetan oinarrituta. Kontuan hartuta Aginduan 6,52 euro/ikasleko/orduko ezartzen direla, diru laguntza hauen ondorioetarako, 2020. urteko taldeko prezioa 9.390 eurotan finkatzen du Euskara Zerbitzuak.

I

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Helburua eta xedea.*

Oinarri hauen helburua da Donostiako euskaltegi pribatu homologatuentzako diru laguntzak arautzea Donostian erroldatuta dauden langabetuentzako doako euskara ikastaroak eman ditzaten.

Euskara ikastaro horietara joatearen kostuaren zati bat finantzatzea da laguntza hauen xedea.

HABEk homologatutako aurrez aurreko euskalduntze ikastaroak diruz lagunduko dira (2005eko uztailaren 27ko Ebazpena).

Ikastaroen ezaugarriak:

— Talde kopurua: 10 gehienez.

— Iraupena: 120 ordu.

— Taldeak: HABEk homologatuak.

— Hiru ordu egunean, astelehenetik ostiralera.

— Datak: 2020ko urriaren 9tik abenduaren 4ra.

— Ordutegia: 10:30-13:45.

— Aurrez aurreko modalitateak: aurrez aurrekoak, aurrez aurreko telematikoak edota eskola batzuk aurrez aurre eta beste batzuk telematikoki eskaintzen dituzten ikastaroak. Baliabidea edozein dela ere, irakasleak eta ikasleak ordutegi zehatz bat bete behar dute elkareraginean.

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Servicio de Euskera

*Bases reguladoras para la concesión de subvenciones para la impartición de clases gratuitas de euskera para personas desempleadas de San Sebastián.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián, en el marco de sus objetivos y funciones, contempla ser el instrumento público para la euskaldunización de la ciudad. Uno de los objetivos estratégicos es fomentar la euskaldunización y alfabetización de adultos; entre otros, se prevé la subvención de proyectos llevados a cabo por euskaltegis para avanzar en el campo de la euskaldunización y la alfabetización.

El Ayuntamiento de San Sebastián está interesado en subvencionar en el presente ejercicio 2020 cursos de euskera destinados a personas desempleadas empadronadas en la ciudad a través de los Euskaltegis privados homologados. Para ello se ha establecido una cuantía fija de subvención fijado en referencia a los precios públicos recogidos en la Orden de 17 de septiembre de 2013, de la Consejera de Cultura. Conforme a lo recogido en la mencionada Orden que fija un precio de 6,52 euros/hora/alumno, para los efectos de esta convocatoria de subvención, el Servicio de Euskera establece el precio de cada grupo en 9.390 €.

I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto y finalidad.*

Es objeto de las presentes bases la regulación de las ayudas a los Euskaltegis privados homologados de San Sebastián para la impartición de cursos de euskera gratuitos para personas desempleadas residentes en San Sebastián.

La finalidad de las presentes ayudas es financiar parte del coste de la asistencia a dichos cursos de euskera.

Se subvencionarán los cursos presenciales de euskaldunización homologados por HABE (Resolución del 27 de julio de 2005).

Características de los cursos:

— N.º de grupos: máximo 10.

— Duración: 120 horas.

— Grupos: Homologados por HABE.

— Tres horas diarias, de lunes a viernes.

— Fechas: del 9 de octubre al 4 de diciembre de 2020.

— Horario: 10:30 h-13:45 h.

— Modalidad presencial: cursos presenciales, presenciales telemáticos o cursos con unas clases presenciales y otras telemáticas. Sean cuales sean los medios utilizados, el profesorado y el alumnado deben interactuar manteniendo un horario determinado.

EK\CV GAO-I-2020-04220

*2. artikulua. Eskumena duen organoa.*

Deialdia Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartuko du eta deialdiaren zabalpena eta argitalpena bermatuko du.

*3. artikulua. Arautegi aplikagarria.*

Laguntzen emakidak nahiz diru laguntza emailearen eta onuradunen arteko lege harremanak oinarri hauen arabera eta diru laguntzak ematerakoan indarrean dagoen araudiaren arabera xedatuko dira.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*. 2003-11-18) eta 887/2006 Errege Dekretuaz onartuta legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

Halaber, honako diru laguntza hauek emateko modua eta diruz lagunduriko proiektu eta jarduerak gauzatzea arautuko dira honako hauek erabilita: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, 24.2 artikuluak xedatzen duenez, «euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lanjardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei»; Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, eta Donostiako Udalaren Berdintasun Plana.

II

ENTITATE ONURADUNAK ETA HARTZAILEAK

*4. artikulua. Entitate onuradunak.*

HABEko Euskaltegien eta Euskararen Autoikaskuntzarako Zentroen Erregistroan euskaltegi pribatu homologatu gisa inskribatuta dauden Donostiako euskaltegi pribatu homologatuek eska ditzakete diru laguntza hauek.

Azaroaren 17an onarturiko diru laguntzen 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsonek edo erakundeek ezingo dituzte jaso diru laguntza hauen onurak.

Norbanakoek edo erakundeek ezingo dute diru laguntzarik jaso baldin eta Donostiako Udalarekin edo entitateekin dituzten zorrengatik behartze bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere Udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango dela zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa behera utzita egotea.

Halaber, ezingo dituzte jaso honako diru laguntza hauek sexu bereizkeria egin izanaren ondorioz zigor administratiboa edo penala jasotakoek, zigorrean xedaturiko epean.

*5. artikulua. Azken hartzaileak.*

Diruz lagundutako ikastaro hauetan parte hartu ahal izango dute ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsonek:

— 18 urtetik gora izatea ikastaroaren hasiera datarako.

— Langabezia egoeran egotea izen ematea hasten den datarako.

— Donostian egoiliar gisa erroldatuta egotea gutxienez sei hilabetez jarraian ikastaroaren hasiera datarako.

*Artículo 2. Órgano competente.*

Esta convocatoria será aprobada por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián y deberá garantizar su difusión y publicidad.

*Artículo 3. Normativa aplicable.*

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el otorgante y la entidad beneficiaria se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 18-11-2003) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006.

Asimismo, la concesión de las presentes subvenciones y la ejecución de los proyectos y actividades subvencionadas se desarrollará en el marco de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres, cuyo artículo 24.2 establece que, las Administraciones Públicas Vascas no podrán dar ningún tipo de ayuda a las asociaciones y organizaciones que discriminen por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento, así como en el marco de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo del 2007, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y del Plan de Igualdad del Ayuntamiento de San Sebastián.

II

ENTIDADES BENEFICIARIAS Y DESTINATARIOS

*Artículo 4. Entidades beneficiarias.*

Podrán optar a las subvenciones los Euskaltegis de San Sebastián que estén registrados en el Registro de Euskaltegis y Centros de Autoaprendizje del Euskera de HABE como Euskaltegis privados y homologados.

No podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las personas o entidades en quienes concurran algunas de las circunstancias previstas en el art. 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Tampoco podrán concederse subvenciones a los particulares o entidades que se hallen incursos en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de San Sebastián o entidades, ni aquellos que no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

Asimismo tampoco podrán ser destinatarios de las presentes ayudas quienes hayan sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción.

*Artículo 5. Destinatarios finales.*

Podrán participar en los cursos subvencionados las personas que cumplan los siguientes requisitos:

— Ser mayor de 18 años a la fecha de inicio del curso.

— Estar en situación de desempleo a la fecha de inicio de la inscripción.

— Estar empadronado en San Sebastián con un mínimo de periodo de empadronamiento de seis meses sin interrupción a la fecha de inicio del curso.

EK\CV GAO-I-2020-04220

III

DIRU-HORNIDURA

*6. artikulua. Diru baliabideak.*

Euskara Zerbitzuak ikastalde bakoitzeko 3.420,00 euroko diru laguntza emango du.

Oinarri hauetan jasotzen diren laguntzetarako aurrekontua 34.200,00 eurokoa da eta gastua 2020ko Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuko aurrekontuaren 480.01 kontu sailari egotziko zaio.

*7. artikulua. Beste laguntza batzuekin bateragarritasuna.*

Euskara Zerbitzuak emandako diru laguntzak, berak bakarrik edo beste diru laguntza batzuekin batera, ezin izango du inola ere erakunde onuradunak egin beharreko jardueraren kostua gainditu.

IV

PROZEDURA

*8. artikulua. Eskabideak.*

Oinarri hauetako 4. artikuluak aipatzen dituen entitate onuradunek ikastaroak emateko diru laguntza eskabidea aurkeztuko dute gehienez ere 2 talde jasotzeko. Eskabidea eredu ofizialaren araberakoa izango da, oinarrien eranskinetan jasotzen den 11644n ereduaren araberakoa.

Eskabidearekin batera aurkeztuko dira, era berean, zerga betekizunak (Ogasunarekiko eta Udaleko Diru Bilketarekiko) eta Gizarte Segurantzarekiko betekizunak entitateak egunean beteta dauzkala egiaztatzen duten agiriak, baldin eta eskabidean betekizun horien egoera administrazioari bere kabuz egiaztatzeko baimenik ematen ez bazaio.

Halaber, HABEk luzatutako egiaztagiria aurkeztu behar da, Euskaltegien eta Euskararen Autoikaskuntzarako Zentroen Erregistroan euskaltegi pribatu homologatu gisa inskribatuta izateari dagokiona.

Eskabideak aurkezteko epea oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hasi eta handik 10 egunera amaituko da.

Eskabide orria beteta eta gainerako dokumentazioa Euskara Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira: Konstituzio plaza 2-behean, astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00 bitartean.

*9. artikulua. Ikasleak aukeratzeko prozedura.*

1. Oinarri hauetako 11. artikuluak aipatzen duen behin-behineko ebazpena duten entitate onuradunek ikasleen hautaketa egingo dute eta, horretarako, tresna informatikoen bidez zentralizatutako sistema bat erabiliko dute. Ikasleen hautatze lana prozedura honi jarraituz egingo da:

a) Matrikulazio aldia:

— Interesdunek izena eman beharko dute diru laguntza programa honetan parte hartzeko behin-behineko ebazpena duen edozein euskaltegitan, horretarako, matrikula orria behar bezala beteta aurkeztuz. Matrikula orria euskaltegietan eta http://www.donostia.eus eta http://www.donostiaeuskaraz.eus webguneetan eskuragarri dagoen eredu ofizialean bete beharko da, ondoko agiriak erantsiz:

— NANaren kopia.

— Langabezian egotearen egiaztagiria, Lanbidek emandako Izen ematearen aldiei buruzko txostena izeneko idazkia.

III

DOTACIÓN ECONÓMICA

*Artículo 6. Dotación económica.*

El Servicio de Euskera concederá por cada grupo una ayuda de 3.420,00 euros.

La cantidad destinada a las ayudas contempladas en estas Bases es de 34.200,00 euros y el gasto se hará a cargo de la partida 480.01 del presupuesto de 2020 del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián.

*Artículo 7. Concurrencia con otras ayudas.*

El importe de las subvenciones otorgadas por el Servicio de Euskera en virtud de esta convocatoria en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aislada o en concurrencia con otras subvenciones, supere el costo de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria.

IV

PROCEDIMIENTO

*Artículo 8. Solicitudes.*

Las entidades beneficiarias a las que se refiere el artículo 4 de las presentes Bases presentarán solicitud de subvención para la impartición de cursos para un máximo de 2 grupos. La solicitud que se presente se redactará de acuerdo con el modelo de instancia oficial anexa a las bases en el modelo 11644n.

Dicha solicitud deberá acompañarse de los certificados de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (Hacienda y Recaudación Municipal) y frente a la Seguridad Social, en el caso de no autorizar en la solicitud, su comprobación de oficio.

Además, hay que presentar el certificado de HABE por el que se acredita el estar inscrito como Euskaltegi privado homologado en el Registro de Euskaltegis y Centros de Autoaprendizaje de euskera.

Las solicitudes se presentarán en el plazo de 10 días a contar desde el día siguiente al de la publicación de las presentes bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Los impresos debidamente cumplimentados junto con la debida documentación deberán ser entregados en las oficinas del Servicio de Euskera, plaza de la Constitución 2-bajo, de lunes a viernes de 9:00-14:00.

*Articulo 9. Procedimiento de selección de alumnos.*

1. La entidades beneficiarias que cuenten con la resolución provisional a la que se refiere el artículo 11 de las presentes Bases, llevarán a cabo la selección de alumnos y para ello utilizarán un sistema centralizado por medio de herramientas informáticas. La selección se llevará a cabo conforme al siguiente procedimiento:

a) Fase de matriculación:

— Las personas interesadas deberán inscribirse en cualquiera de los Euskaltegis que cuenten con la resolución provisional para la participación en el presente programa de ayudas presentando la hoja de matrícula debidamente cumplimentada en el modelo oficial disponible en los citados Euskaltegis y en las páginas web http://www.donostia.eus y http://www.donostiaeuskaraz.eus acompañada de la siguiente documentación:

— Copia del DNI.

— Documento acreditativo de la situación de desempleo expedido por Lanbide denominado Informe de períodos de inscripción.

EK\CV GAO-I-2020-04220

— 2019/2020 ikasturtean edo 2020ko udan gainditutako euskara maila egiaztatzen duen agiria (data hauetan ikastaroetan aritu direnen kasuan).

— Matrikulatzeko epea 2020ko irailaren 1etik 22ra bitartean egongo da irekita, bi egun horiek barne.

b) Hautatze aldia.

— Matrikula gauzatzean zenbaki bat esleituko zaio izen emandako pertsona bakoitzari, eta zenbaki hori euskara maila berdina duten pertsonen artean hautatzerakoan lehentasunak ezartzeko erabiliko da.

— Ikasleek proba bat egingo dute ikastaroa hasi aurretik, duten euskara maila zehaztu ahal izateko. 2019/2020 ikasturtean (uda barne) euskaltegiren batean aritu diren ikasleek ez dute euskara proba egingo.

— Taldeak euskara mailaren arabera eratuko dira eta ikasleak esleitzen zaion euskaltegira joan beharko du; hau da, ezin izango du euskaltegia aukeratu.

— Taldeak osatutakoan horiei dagokien informazioa donostia.eus eta donostiaeuskaraz.eus webguneetan argitaratuko da. Bertan, horietako talde bakoitzean eskolatuko diren ikasleen identifikazioa jasoko da NANaren bidez, talde horiek zein euskaltegitan emango diren eta zein ordutegi izango duten.

— Onartutako pertsonek hiru eguneko epea izango dute taldean baja ematea eskatzeko. Baja hori kasuan kasuko euskaltegiari adieraziko zaio.

— Plazarik gabe gelditutako pertsonekin itxarote zerrenda bat eratuko da, www.donostia.eus eta www.donostiaeuskaraz.eus webguneetan argitaratuko dena. Bajaren bat gertatuz gero zerrendan dagoen lehen pertsona sartuko da taldean, baldin eta kasuan kasuko ikastaroan sartzeko euskara maila egokia badu.

c) Taldeak eratzeko irizpideak.

Taldeak eratzeko, ikaslearen abiapuntu maila hartuko da kontuan eta honako azpimailen hurrenkera erabiliko da taldeak osatzen joateko:

1. B1A2 azpimaila.
2. B1B1 azpimaila.
3. A2A2 azpimaila.
4. B2B1 azpimaila.
5. A2A1 azpimaila.
6. A1A1 azpimaila.
7. B2B2 azpimaila.
8. A0A0/A1A0 azpimaila.
9. C1B2 azpimaila.

Hau da, lehenik B1A2 abiapuntua duten ikasle taldea(k) eratuko d(ir)a; bigarrenik B1B1 abiapuntua duten ikasle taldea(k), eta horrela hurrenkera hau oinarri hartuta.

*10. artikulua. Ikastaroetara asistentzia.*

Asistentzia nahitaezkoa izango da eta bi egunetan ikaslea ez bada eskoletara joaten ikastaroetara joateko eskubidea galduko du. Baja bat onartutzat emango da honako egoerak gertatzen badira: gaixotasuna edo lana aurkitzea. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da Euskaltegian.

Baja bat ematen denean, itxaron zerrendan dagoen lehen pertsonak hartuko du parte ikastaroan, betiere, ikastaro horren maila baldin badu, ikastaroaren hasieran egindako mailaketa frogaren arabera eta baja ikastaroaren zein mementotan gertatu den kontuan izanda.

— Documento acreditativo del nivel de euskera superado durante el curso 2019/2020 o durante el verano de 2020 (en el caso de haber asistido a cursos en estas fechas).

— El plazo de matriculación estará abierto del 1 al 22 de septiembre de 2020, ambos incluidos.

b) Fase de selección.

— Al realizar la matrícula a cada persona se le adjudicará un número que servirá para fijar las prioridades de selección entre las personas que tengan el mismo nivel de euskera.

— Los alumnos realizarán una prueba para determinar el nivel de euskera antes de comenzar el curso. Los alumnos que hayan estado escolarizados en algún Euskaltegi durante el curso 2019/2020 (verano incluído) no harán la prueba de nivel de euskera.

— Los grupos se constituirán según el nivel de euskera y el alumno/a deberá acudir al euskaltegi que le corresponda, es decir, no podrá elegir Euskaltegi.

— Una vez se hayan constituido los grupos, la información correspondiente a los mismos se publicará en las páginas donostia.eus y donostiaeuskaraz.eus, donde se recogerán la identificación de los/as alumnos/as de cada grupo mediante el n.º del D.N.I., el Euskaltegi que impartirá el curso y el horario.

— Las personas que hayan sido aceptadas tienen un plazo de tres días para darse de baja en el grupo. Esa baja se comunicará al Euskaltegi correspondiente.

— Con aquellas personas que se hayan quedado sin plaza se hará una lista de espera y se publicará en las páginas www.donostia.eus y www.donostiaeuskaraz.eus Si se produce alguna baja se incorporará al grupo la primera persona que esté en lista siempre que tenga el nivel de euskera correspondiente al curso.

c) Criterios para la constitución de los grupos.

La constitución de los grupos se hará en base al subnivel de partida / inicio del alumno o alumna y el orden para la composición de los mismos será el siguiente:

1. Subnivel B1A2.
2. Subnivel B1B1.
3. Subnivel A2A2.
4. Subnivel B2B1.
5. Subnivel A2A1.
6. Subnivel A1A1.
7. Subnivel B2B2.
8. Subnivel A0A0/A1A0.
9. Subnivel C1B2.

Es decir, primero se constituirá el grupo o grupos con alumnos-as del subvnivel de inicio B1A2; segundo con alumnos-as que tienen el subnivel de inicio B1B1 y así siguiendo el orden recogido.

*Artículo 10. Asistencia a los cursos.*

La asistencia será obligatoria y si en un plazo de dos días no se asiste a las clases se perderá el derecho a la asistencia al curso. Se aceptará como baja justificada si concurren cualquiera de estas situaciones: enfermedad o haber encontrado trabajo. Para ello, habrá que presentar la documentación correspondiente en el Euskaltegi.

Cuando se produzca una baja, se incorporará al grupo la primera persona que esté en la lista de espera siempre que tenga el nivel correspondiente al curso, conforme a la prueba de nivel de euskera realizada al comienzo del mismo y en función de la fecha del curso en que se produzca la baja.

EK\CV GAO-I-2020-04220

Lehentasuna izango dute aurreko urteetan, 2016, 2017, 2018 eta 2019an, izaera berarekin antolatu ziren ikastaroetan aritu ez ziren langabetuek.

Bigarrenik aurreko ikastaroetan parte hartu zutenak eta gutxienez % 90eko asistentzia izan zutenak.

*11. artikulua. Izapidetzea eta proposamena.*

Jardunbideak izapidetzeaz Euskara Zerbitzuko hizkuntza normalkuntzarako teknikaria arduratuko da.

Izapidetzaileak lehenik eta behin egiaztatuko du ea laguntza hauek jasotzeko entitate onuraduna izateko baldintzak betetzen diren, eta behin-behineko ebazpen proposamen bat prestatuko du, laguntza programa honetan, hasiera batean, baldintzak betez gero, parte har dezaketen entitateak zehazturik bertan. Ebazpenean espresuki adierazi beharko da, hala badagokio, gainerako eskabideak ez direla onartu eta zein arrazoirengatik.

Behin-behineko ebazpen hori eskabidea aurkeztu duten entitate guztiei jakinaraziko zaie.

Entitateek ikasleen matrikulazioa eta hautaketa egin beharko dute oinarri hauetako 9. artikuluan xedatzen denari jarraituz.

Ikasleen hautaketa eginda, euskaltegiek osatutako talde bakoitzeko 11641n eranskina eta taldeari dagokion HABEk luzatutako talde fitxa, ikastaroaren hasierari dagokiona, behar bezala beteta aurkeztuko dituzte Euskara Zerbitzuan, dokumentazio hau aurkezteko epea 2020ko azaroaren 10ean amaituko da.

Matrikulatutako ikasleak eta beraiekin eratutako taldeak ikusita, behin betiko izaeraz emango da oinarri hauetan ageri diren diru laguntzak emateko ebazpena, ondoko irizpideei jarraituz:

a) Sortzen diren taldeak entitate onuradunak adina badira, talde bana esleituko zaie entitateei.

b) Taldeak entitateak baino gehiago badira, behin talde bana esleituta, bigarren taldea esleitzeko 2013an helburu bera betetzeko egindako zozketan izandako emaitzak hartuko dira oinarri, eta ondorioz, entitate onuradunen hurrenkera honakoa izango da 2020ko taldeak esleitzeko:

1. Legazpi 6 euskaltegia.
2. Urumea (Gernika XXI) euskaltegia.
3. Hitzez euskaltegia.
4. Urrats euskaltegia.
5. AEK.
6. Ilazki euskaltegia.

c) Taldeak entitateak baino gutxiago badira, aurrean jasotako hurrenkera erabiliko da taldeak esleitzeko.

Behin betiko ebazpenean espresuki adieraziko da diru laguntzaren zenbatekoa, bai eta esleitutako taldeak, ordaintzeko era, zuritzeko era eta oinarri hauetan eskatzen diren gainerako baldintza eta betebeharrak ere.

Behin-behineko izaeraz ebazpena emateko organoa Kultura eta Euskarako zinegotzi ordezkaria izango da. Behin betiko izaeraz ebazpena emateko organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

Behin betiko ebazpenak eman eta jakinarazteko epea, gehienik jota, sei hilabetekoa izango da. Epe hori berariazko ebazpena jakinarazi gabe igaroz gero, eskatzaileek egindako diru laguntza eskaerak ezetsi direla ulertu ahal izango dute.

Emandako diru laguntzak www.donostiaeuskaraz.eus web orrian argitaratuko dira, adierazita diru laguntzaren zenbateko, xedea eta onuradunak.

Tendrán prioridad las personas que no tomaron parte en los cursos organizados anteriormente, en el año 2016, 2017, 2018 y 2019, con el mismo fin.

Se priorizará, en segundo lugar, a las personas que tomaron parte en los cursos anteriores y tuvieron una asistencia del 90 % como mínimo.

*Artículo 11. Instrucción y propuesta.*

La instrucción de los procedimientos corresponderá al Técnico de Normalización Lingüística del Servicio de Euskera.

El instructor verificará en primer lugar el cumplimiento de los requisitos para ser entidad beneficiaria de las presentes ayudas y formulará una propuesta de resolución provisional que determinará inicialmente las entidades que, cumpliendo los requisitos, podrán participar en el presente programa de ayudas. La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso, del resto de solicitudes y los motivos en que se fundamenta.

Dicha resolución provisional será notificada a todas las entidades solicitantes.

Las entidades deberán proceder a la matriculación y selección de alumnos conforme a lo establecido en el artículo 9 de las presentes Bases.

Tras la selección de los alumnos los Euskaltegis presentarán por cada grupo constituido en el Servicio de Euskera los anexos 11641n y la ficha de grupo expedida por HABE, correspondiente al inicio del curso, debidamente cumplimentados, el plazo para presentar la documentación finalizará el 10 de noviembre de 2020.

A la vista de los alumnos matriculados y la conformación de grupos resultantes se resolverá definitivamente la concesión de las subvenciones contempladas en las presentes Bases conforme a los siguientes criterios:

a) De resultar el mismo número de grupos que entidades beneficiarias se asignará un grupo a cada entidad.

b) Si hubiere más grupos que entidades, una vez de asignar un grupo a cada entidad, para la asignación de un segundo grupo se tendrán en cuenta los resultados del sorteo realizado el año 2013 para el mismo fin, así, para el 2020 el orden de asignación de grupos es el siguiente:

1. Legazpi 6 euskaltegia.
2. Urumea (Gernika XXI) euskaltegia.
3. Hitzez euskaltegia.
4. Urrats euskaltegia.
5. AEK.
6. Ilazki euskaltegia.

c) De resultar menos grupos que entidades, la asignación de grupos se realizará en base expuesto anteriormente.

En la resolución definitiva se hará constar de manera expresa la cuantía de la subvención, los grupos asignados, la forma de pago, la forma de justificación y demás condiciones y requisitos exigidos en las presentes Bases.

El órgano competente para resolver provisionalmente será el Concejal delegado de Cultura y Euskera. El órgano competente para resolver definitivamente será la Junta de Gobierno Local.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución definitiva es de seis meses. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución expresa, las personas solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes de subvención.

La relación de subvenciones concedidas, serán publicada en la web (www.donostiaeuskaraz.eus), con indicación de su importe, su objetivo o finalidad y los/as beneficiarios/as.

EK\CV GAO-I-2020-04220

*12. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak.*

a) Diru laguntza emateko arrazoia izan den jarduera edo egitasmoa gauzatzeko konpromisoa hartzea edo dagoeneko gauzatuta izatea.

b) Ikasleen hautaketa oinarri hauen 9. artikuluan jasotzen denaren arabera egitea.

c) Jarduera gauzatu duela edo jardunbidea hartu duela eta laguntza eskuratzeko baldintzak eta betebeharrak bete dituela egiaztatzea.

d) Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko beharrezko baimenak eskuratzea eta haietan agindutakoa betetzea.

e) Indarrean dagoen legeriak dioenarekin bat, diru laguntza emaileak egindako kontrol jardueren edota finantza kontrolerako edota egiaztatzeko egindako jardueren esanetara jarri eta laguntza ematea, eskatutako informazio guztia helaraziz.

f) Kontabilitateko liburuak, arretaz egindako erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezala ikuskatuak izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplika dakiokeen merkataritza eta sektore arloetako legeriak eskatutakoarekin bat. Era berean, egiaztapen eta kontrol lanak modu egokian egiten direla bermatzeko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriek eskatutako kontabilitate egoera-orriak eta erregistro espezifikoak eskura izatea.

g) Diru laguntza onuradunak laguntza zertan erabiltzen duen egiaztatzeko dokumentuak gorde beharko ditu lau urtean, dokumentu elektronikoak barne, Udalak ikuskatzeko aukera izan dezan.

h) Beste edozein administrazio edo erakundetatik (publiko nahiz pribatua) jasotako diru laguntzak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada.

i) Diru laguntza emateko kontuan izandako alderdi objektibo nahiz subjektiborik aldatu bada, horren berri ematea.

j) Diru laguntzen emakiden gaineko erabakia hartu aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak betetzen dituela egiaztatzea.

